



BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA

PROBA LIBREA

3. ariketa KOMUNIKAZIO EREMUA: EUSKARA ETA LITERATURA

2011ko AZAROA

Deiturak eta izena: _____

Sinadura:

JARRAIBIDEAK

1. Testua eta galderak arretaz irakurri eta ahal duzun bezain ongien erantzun.
2. Galdera guztiak erantzuten saia zaitez.
3. Emandako denbora baino lehen bukatuz gero, ondo birpasa ezazu egindakoa.
4. Adi ortografiari: letra larriak, txikiak, puntuak, komak, etab.
5. Horrela eskatzen den ariketetan, erantzun zuzena borobildu edo gurutze bat egin iezaiozu.
6. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.
7. Gaizki erantzundakoek ez dute puntuazioa jaitsiko.

INSTRUCCIONES

1. Lea atentamente el texto y las preguntas y conteste lo mejor que sepa.
2. Procure responder a todas las preguntas.
3. Si termina antes del tiempo fijado, repase bien lo que ha hecho.
4. Revise bien la ortografía: mayúsculas, minúsculas, tildes, etc., así como los signos de puntuación.
5. En aquellas actividades que así lo requieran, rodee con un círculo o haga una cruz en la opción que considere correcta.
6. La puntuación se indica al lado de cada pregunta.
7. Las respuestas incorrectas no restarán puntuación.

Irakurri testua eta ondorengo galdereei erantzun:

TXOKOLATEA: BEKATUA EDO PLAZER OSASUNGARRIA?

Penak goxatzeko, egun ilun bati argi pixka bat egiteko edo unerik ederrenen gozoa ospatzeko. Gauza askotarako erabiltzen da txokolatea. Batzuek esaten dute ezaugarri osasungarriak dituela, eta beste batzuek, aldiz, hainbat kalte ekarri ohi dituela: aknea, pisu gehiegia, migraina... **Mendekotasuna** sortzen duela ere esaten dute zenbaitek. Denetarik



entzuten da, baina ezin da ziurtasunez esan zer oinarri daukaten aipamen horiek. Kakaoaren **eratorri** nagusia da txokolatea, eta adituek diotenez, txokolatearen zenbait osagai onuragarriak dira oxidazioaren aurka egiteko, eta hori, bereziki, bihotz-hodien osasunarentzat gertatzen da mesedegarri. Txokolatearen dohainei buruz hitz egiten hasi aurretik bereizi egin behar dira txokolate motak, bat baino gehiago daude eta: beltza, esneduna eta zuria, hain zuzen.

Argitara eman diren zenbait ikerketak nabarmendu dutenez, txokolateak baditu ezaugarri onuragarriak, baina txokolaterik puruena izan behar du, beltza, eta

neurrian jan behar da: 20 gramo txokolate jateak, adibidez, on egin liezaieke bihotz-hodiei eta egoera emozionalari.

Txokolate beltza: osasuna tableta batean

Herri-jakinduriak ezaugarri eta dohain asko jarri izan dizkio txokolateari. Sendatzeko gaitasuna omen duela, kaltegarria dela, afrodisiakoa... Gauza asko esan dira, eta oraindik ere hainbat ikerketa egiten dira, txokolatearen ezaugarriak zein diren jakin nahian. Kakaoa kontsumitzeko modurik ohikoena txokolatea jatea izaten da. Gauza jakinen artean, badakigu txokolatearen kalitatea hainbat eta hobea izango dela, zenbat eta kakao-pasta gehiago eduki, eta osasunari ekartzen dizkion onurak ere, beraz, eztaba da ezinangoak izango direla.

Txokolate beltzak, esaterako, %99 dauka kakao-pasta, txokolate esnedunak, %40 baino gutxiago du kakaoa, eta txokolate zuriak, berriz, kakao-gurina izaten du, baina ez kakao-pasta. Ez da zuzena, beraz, txokolatearen dohainez hitz egitea, beste zehaztapenik egin gabe, zeren esneduna baita jendeak gehien jaten duen txokolatea, eta osasungarriena, aldiz, beltza da (eta zenbat eta kakao gehiago eduki, alegia zenbat eta **mikatz**agoa izan, orduan eta hobea, gainera). Are gehiago: ikerketek azpimarratzen dute kakaoak oxidazioaren aurka egiteko duen gaitasuna baliogabetu egiten dela esnearen eraginez, eta esnea da, hain zuzen, gehien kontsumitzen den txokolate motaren osagaietako bat, baita kakaoa disolbatuta hartzeko erabiltzen dena ere.

Beste hitz batzuekin esanda: txokolatea benetan osasungarria izan dadin, purua izan behar du, beraz, txokolate mikatza.

mendekotasun - dependencia

eratorri - derivado

mikatz - amargo

(www.consumer.es – Moldatua)

1. Zein da testuaren ideia nagusia?

(1 puntu)

2. Zer testu-mota da irakurritakoa?

(1 puntu)

- a - Iritzi-artikulua
- b - Albistea
- c - Dibulgazio-artikulua
- d - Narrazio laburra

3. Erantzun hurrengo galderak.

(1,5 puntu)

3.1. Zein da txokolate mota osasungarriena? Zergatik?

3.2. Ba al du txokolate zuriak kakao-pastarik? Zer du txokolate zuriak?

3.3. Gogoratzen al zara txokolatea jan zenuen lehenengo aldiz edo txikitan jaten zenuenean? Noiz izan zen?

4. Aukeratu erantzun egokia.

(1,5 puntu)

4.1. Txokolateak

- A – ezaugarri osasungarri asko ditu.
- B – kalte handiak ekartzen ditu.
- C – dituen ezaugarri osasungarriak edo ekartzen dituen kalteak ezin dira ziurtasunez esan.

4.2. "Sendatzeko gaitasuna du, kaltegarria da, afrodisiakoa da..." Nork jarri dizkio halako ezaugarriak txokolateari?

- A – Herri-jakinduriak.
- B – Adituek.
- C – Txokolatezaleek.

4.3. Zein da zuzena?

- A – Txokolate mota guztiek ezaugarri onuragarriak dituzte eta ez da inporta zenbat jaten den.
- B – Kakao-pasta gehien duen txokolateak kalitate hobea du.
- C – Esnea duen txokolateak oxidazioaren aurka egiteko gaitasun handia du.

5. Bete hutsuneak (5 aditz eta 5 deklinabide-marka) honako irizpideak kontuan hartuta:

(2 puntu)

- **Puntutxorik** egonez gero, **aditz-forma** bat jarri behar duzu.
- **Marrarik** egonez gero, **deklinabide-marka** bat jarri behar duzu.

Adibidea: . Txokolate_____ zenbat eta kakao portzentaje handiagoa eduki, hainbat eta kalitate hobea izango

. Txokolate**ak**_____ zenbat eta kakao portzentaje handiagoa eduki, hainbat eta kalitate hobea izango**du**..... .

Txokolate beltza kakao-pasta eta kakao-gantza azukre_____ nahastuta egiten da, eta jende_____ izugarri gustatzen, bere zapore mikatz eta purua dela medio. Ez eranstean bestelako produktu_____, gehigarriren bat ezik. Gutxienez, % 50 eduki behar kakao-pasta. Kopuru horretatik gora hasten nabarmentzen kakao_____ zapore mikatza. Etiketa batzuek gisa honetako aipamen_____ ekartzen dituzte: %70, %85, %99, eta zenbaki horiekin, zenbat kakao-pastan jakinarazten dute. Zenbakia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta mikatzagoa izango da txokolatea, eta ezaugarri osasungarri gehiago izango ditu.

